

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	MAKILLAJE SOZIALA (zeharkakoa)	Iraupena	90
Kodea	MF0065_2		
Lanbide-arloa	Irudi pertsonala		
Lanbide-eremua	Estetika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Makillaje integrala	Maila	3
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko behar den gainerako prestakuntza	Segurtasuna eta osasuna makillaje integralean	Iraupena	90
	Bitarteko eszenikoetarako eta ikus-entzunezko produkzioetarako makillaje-tekniken aplikazioa (zeharkakoa)		70
	Aurpegiko eta gorputzeko fantasiazko makillaje-tekniken aplikazioa (zeharkakoa)		50
	Mikropigmentazio-teknikak aplikatzeko ekipoak, instalazioak eta produktuak prestatzea (zeharkakoa)		30
	Mikropigmentazio-teknikei buruzko aholkularitza eta haien aplikazioa (zeharkakoa)		90
	Tatuaje-teknikak aplikatzeko ekipoak, instalazioak eta produktuak prestatzea		30
	Tatuaje artistikoko teknikei buruzko aholkularitza eta haien aplikazioa		90
	Makillaje integralaren lanbideko lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		120

A atala: GAITASUN-ERREFERENTEA

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC0065_2 AURPEGIAREN HARMONIA HOBETZEA MAKILLAJE SOZIALEKO ESTILOEKIN.

B atala: AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA
Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Aurpegi-motak eta ezaugarri kromatikoak ezagutzea eta desberdintzea, makillaje sozialeko estiloetarako beharrezko diren visagismo-zuzenketak egiteko.

- EI1.1 Aurpegi-motak sailkatzea, aurpegiaren geometriaren eta proportzioen arabera.
- EI1.2 Lerroen, argilun-tekniken eta orrazkeren bidez obalo-motei zer zuzenketa egiten zaizkien azaltzea.
- EI1.3 Bekain-motei egiten zaizkien zuzenketak eta haiek begi, sudur eta obaloarekin duten erlazioa deskribatzea.
- EI1.4 Begi-motei delineatzeen, itzalen edo azaleko kosmetikoen bidez egiten zaizkien zuzenketak fitxa teknikoaren laguntzaz diseinatzea.
- EI1.5 Kopetari, sudurrari, kokotsari eta obaloari argilun-teknikaren bidez zer zuzenketa egiten zaien azaltzea.

A2: Makillaje sozialak aplikatzean argiak, koloreak eta beste elementu batzuek —egoerak, adinak, estiloak eta janzkerak— duten eragina azaltzea.

- EI2.1 Argi-motek kosmetikoen kolorean eta testuran duten eragina azaltzea.
- EI2.2 Eguneko eta arratsalde-gaueko makillaje-estiloak argi-motekin erlazionatzea, kalitateari eta intentsitateari dagokienez.
- EI2.3 Makillatze-jarduerarekin erlazioa duten kolorearen teoriaren alderdi nagusiak deskribatzea.
- EI2.4 Pigmentu-koloreen nahasketen gakoak eta makillajearen haiek duten aplikazioa azaltzea.
- EI2.5 Kolore beroak eta hotzak desberdintzea.
- EI2.6 Makillajeko koloreen harmonia eta horrek larruazalaren, begien eta ilearen kolorearekin duen erlazioa azaltzea.
- EI2.7 Adinak, nortasunak, egoerak eta janzkerak makillajearen duten eragina deskribatzea.

A3: Makillaje sozialeko kosmetiko, tresna eta materialak aplikatzean eta manipulatzeko, desinfekzio-, esterilizazio- eta garbiketa-prozedurak aztertzea eta aplikatzea, eta makillajearen konposizioari eta ezaugarriari dagokienez egokienak direnak hautatzea.

- EI3.1 Bezeroa babesteko neurriak deskribatzea.
- EI3.2 Tresnak eta materialak garbitzeko, desinfektatzeko eta esterilizatzeko kasu praktiko batean, tratatu beharrek materialaren (pintzelak, belakiak, borlak eta abar) konposizioa ezagutzen dela:
 - Material-multzo bakoitzean ohikoenak diren zikinkeria-motak azaltzea.
 - Material-mota bakoitzerako desinfekzio- eta esterilizazio-metodo egokiena hautatzea.
 - Zer tresna eta material garbitu, desinfektatu edo esterilizatu behar den arrazoiak emanez azaltzea.

EI3.3 Makillajeak, ezpain-margoak, begietako arkatzak eta betile-maskarak infekziorik ez transmititzeko nola manipulatu behar diren zehaztea.

A4: Makillaje sozial motak aplikatzeko behar diren kosmetikoak, tresnak eta materialak beharrezko higiene-, desinfekzio- eta esterilizazio-arauak betez hautatzea eta prestatzea.

EI4.1 Larruazal-motak identifikatzea, eta haien makillaje-kosmetikoak hautatzeko duten garrantzia azaltzea.

EI4.2 Tresnak eta materialak —pintzelak, belakiak, espatulak, kotoi-txotxak eta beste batzuk—identifikatzea, eta haien helburua eta erabilera ezagutzea.

EI4.3 Aurpegia, begiak, ezpainak eta masailalboak makillatzeko behar diren kosmetiko apaingarri motak desberdintzea.

A5: Zenbait estilotako makillaje soziala aplikatzea, ezaugarri estetikoak, adina, nortasuna nahiz makillajea erakutsiko den egoera aintzat hartuz eta segurtasun- eta higiene-neurri optimoetan.

EI5.1 Bekainen forma diseinatzea eta hari zuzenketak egitea, aurpegiaren harmonia hobetzeko.

EI5.2 Larruazala haren ezaugarrien arabera —adina, emultsio epikutaneoak, kolorea— produktu egokiekkin prestatzea, emaitza hobea izan dadin eta makillajeak gehiago iraun dezan.

EI5.3 Larruazalaren alterazio txikiei eta kolorazioari zuzenketak egitea, akatsak neutralizatzen dituzten oinarri akats-zuzentzaileak emanaz.

EI5.4 Makillaje-oinarri jariakorra, erdikompaktua, kompaktua eta kamuflajekoa hautatzeko irizpideak azaltzea eta aplikatzea, forma kosmetiko bakoitzerako egokiak diren arrastatze- eta lausotze-teknikak eta makillajea ukitu homogeneoak eginez emateko teknikak hautatuz.

EI5.5 Makillaje-oinarria zenbait kosmetiko-motaren —hautsezko kosmetikoen, espraiz finkatzeko kosmetikoen eta abarren— bidez finkatzea.

EI5.6 Begi urdinak, berdeak edo gaztainakarak izanez gero, begi-itzalen eta makillajearen artean zer kolore-harmonia hautatu behar den azaltzea.

EI5.7 Makillajearen harmonia naturalari dagokionez, begietan, ezpainetan eta masailalboetan aplikatuko diren koloreak hautatzea.

EI5.8 Begi, betile, ezpain eta masailalboen formari zuzenketak egitea, kosmetiko eta makillaje-teknika —delineatzea, lausotzea, nabarmentzea eta abar— egokien bidez.

EI5.9 Ordezko betileak —betile-tirak edo betile-multzoak— segurtasun-neurriak betez jartzea.

EI5.10 Makillaje sozialeko estiloak aplikatzea adin desberdinetako pertsoneri eta egoera desberdinetan erakusteko.

A6: Makillaje sozialeko prozesuen kalitatea ebaluatzea, bezeroaren gogobetetze-maila ezagutzeko teknikak erabiliz, eta gerta litezkeen desbideratzeak zuzentzea.

EI6.1 Makillaje-zerbitzuaren kalitatea egiaztatzeko ebaluatu behar diren alderdi garrantzitsuak identifikatzea.

EI6.2 Makillaje-zerbitzua ebaluatzeko kasu praktiko batean:

- Aurreikusitako emaitzekin konparatuta izan diren desbideratzeak detektatzeko teknikak deskribatzea.
- Zer fasetan gertatu diren identifikatzea.
- Lortutako emaitzak lortu nahi ziren emaitzetara egokitze neurriak proposatzea.

Edukiak

1. Aurpegiaren morfologia eta zuzenketak.

- Edertasunaren kontzeptuaren bilakaera.
- Aurpegia eta aurpegi-obaloa:
 - Geometria, proportzioak eta lerroak.
 - Bertikaltasuna eta horizontaltasuna.
 - Obalo-motak eta sailkapena.
 - Aurpegi-mota desberdinen ezaugarriak.
 - Harmoniaren kontzeptua.
 - Aurpegiaren adierazkortasuna. Puntu aktiboak eta pasiboak.
 - Aurpegiko hezur-irtenguneak eta -sakonuneak.
 - Aurpegiaren lerroak eta neurriak.
 - Aurpegi-atalen proportzioak.
- Aurpegiko elementuak eta atalak:
 - Bekainak, begiak eta ezpainak.
 - Kopeta, masailalboak, sudurra eta kokotsa.
 - Motak, sailkapena eta ezaugarriak.
- Aurpegiko elementuei zuzenketak egiteko teknikak:
 - Argiluna.
 - Lerroak.
 - Depilazioa.
 - Kolorea.
 - Ileak aurpegiko zuzenketetan eta harmonian duen funtzioa.

- Zuzendu daitezkeen aurpegiko atalak:
 - Aurpegi-obalaoa: geometria, proportzioak, irtenguneak, sakonuneak eta abar.
 - Bekainak: kolorea, lodiera, luzera, lerro-oreka, asimetriak.
 - Begiak: lerroa, distantzia, forma, tamaina eta bolumena. Betileak.
 - Ezpainak: tamaina, lodiera, lerroa, sudurrarekiko distantzia, asimetriak.
 - Kopeta, sudurra eta kokotsa: zabalera, luzera eta abar.

2 Argia eta kolorea, makillaje sozialari aplikatuta.

- Argia eta hark makillajearen duen eragina.
 - Argi naturala eta argi artifiziala: ezaugarriak.
 - Intentsitatea eta kalitatea.
- Kolorearen teoria eta makillajea.
 - Kolorea: izaera eta ezaugarriak.
 - Argi-kolorea eta pigmentu-kolorea.
 - Pigmentu-koloreen sailkapena eta ezaugarriak.
 - Zirkulu kromatikoak.
 - Kolorearen dimentsioak edo aldagaiak: asetasuna, tonua eta distira.
- Kolorea makillajeari aplikatzea:
 - Koloreak: beroak eta hotzak.
 - Eskala kromatikoak.
 - Harmonia eta kontrastea.
 - Kolorearen efektu psikologikoak.
- Kolorea eta makillaje sozialeko estiloak. Harmonia makillaje sozialean.
 - Elementu eta faktore baldintzatzaileak.
 - Argi-mota.
 - Estiloa.
 - Aurpegiko koloreak: larruazala, begiak, bekainak eta ezpainak.
 - Jantzien kolorea.

3 Higienea, desinfekzioa eta esterilizazioa, makillaje sozialeko prozesuei aplikatuta.

- Higienea, desinfekzioa eta esterilizazioa, kosmetiko apaingarrien aplikazioan.
- Makillaje sozialeko prozesuetan kontuan hartu beharreko arriskuak. Intolerantziak, alergiak eta kutsatzeak.
- Kosmetiko apaingarriak aplikatzeko segurtasun- eta higiene-arauak.
 - Apain-mahaia prestatzea, garbiketa- eta antolamendu-prozedura espezifikoekin.
 - Tresnak eta materialak zer materialez eginak diren kontuan hartuta, haiek garbitzeko, desinfektatzeko eta/edo esterilizatzeko metodoak.
 - Lantaldea berrikustea eta antolatzea.
 - Kosmetikoak aplikatzeko arauak: oinarriak, ezpain-margoak, betile-maskarak.
 - Behin erabili eta botatzeko tresnak eta materialak.

4 Makillaje sozialean erabiltzen diren kosmetiko apaingarriak, tresnak eta materialak.

- Makillaje-ekipoa; tresna eta material hauek deskribatzea, sailkatzea eta prestatzea: pintzelak, belakiak, pintzak, ile-eskuila, kosmetiko apaingarriak eta abar.
- Makillaje sozialean erabiltzen diren kosmetiko apaingarriak hautatzeko irizpideak.
- Kosmetiko apaingarrien kolorea eta testura hautatzeko erabakigarriak diren faktoreak:
 - Larruazal-mota eta larruazal-, begi- eta ile-kolorea.
 - Bezeroaren nortasuna eta adina.
 - Jantzien kolorea.
 - Argiztapen-mota.
 - Unea eta egoera.
- Tresnak eta materialak hautatzeko irizpideak:
 - Teknika-mota.
 - Kosmetiko-mota: testura, estaltzeko ahalmena eta abar.

5 Makillaje sozialeko teknikak.

- Aldez aurreko teknikak:
 - Bezeroa prestatzea eta kokatzea.
 - Sentikortasun-proba.
 - Bekainak eta betileak tindatzea.
 - Bekainak eta aurpegia depilatzea.

- Makillajea kentzea eta larruzala prestatzeko teknikak.
- Makillatzeko teknikak:
 - Makillaje-oinarriak.
 - Zuzenketa argiak.
 - Oinarri-makillajea: makillajea ukitu homogeneoak eginez ematea, arrastatzea eta lausotzea.
 - Zuzenketa ilunak.
 - Delineatzea eta begi-itzalak: lerro-trazatzea eta lausotzea.
 - Ezpainak nabarmentzea eta makillatzea.
 - Koloretea.
 - Makillajea finkatzeko teknikak.

6 Makillaje sozialeko estiloak.

- Makillaje sozialeko estiloak: kontzeptua eta sailkapena.
- Makillaje-estiloak desberdintzen dituzten ezaugarriak.
- Makillaje sozialeko estiloaren arabera koloreak eta testurak hautatzeko irizpideak.
- Makillaje sozialeko estiloak aplikatzeko teknikak:
 - Eguneko makillajea: zuzenketak, koloreak, testurak eta teknikak.
 - Arratsalde-gaueko makillajea: zuzenketa argiak eta ilunak, koloreak, testurak eta teknikak.
 - Festako makillajea: zuzenketa argiak eta ilunak, koloreak, testurak, distirak, lentejuelak eta beste batzuk. Andregai-makillajea: argazki eta bideorako zuzenketak, koloreak eta testurak.
 - Nork bere burua makillatzea.
 - Makillaje bereziak: gorriuneak, orbanak eta beste zenbait alterazio estetiko. Begi betaurrekodunak.

7 Makillaje sozialeko prozesuen ebaluazioa eta kalitate-kontrola.

- Kalitatearen kontzeptua, makillaje sozialeko prozesuei aplikatuta.
- Makillaje sozialeko zerbitzuen kalitatea definitzen duten parametroak.
- Kalitatea makillaje sozialeko zerbitzuak eta kosmetiko apaingarriak saltzeko teknikak aplikatzean.
- Bezeroak zerbitzuari dagokionez nahiz jasotako tratuari dagokionez zer-nolako gogobetetze-maila duen neurtzeko teknikak.
- Makillaje sozialeko zerbitzuetan izandako desbideratzeak zuzentzeko teknikak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Makillaje integrala.